

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehen aipatu dugun bezala, guk zerbitzu osoa eskaintzen diogu bezeroari, eta, beraz, hainbat hornitzaile izango ditugu. Garrantzitsua da azpimarratzea gure enpresak ez duela bere produktua sortzen, baizik eta bitartekari lana egiten duela enpresen eta bezeroen artean.

Pertsonen zaintzari dagokionez, gure enpresa arduratzen da adinekoen bizi-ahalik eta erosoena izateaz; beraz, ahalik eta gehien laguntzen saiatuko gara. Egunerokotasunari dagokionez, ohetik jaikitzeke zailtasunak badituzte, gu arduratuko gara horretaz. Era berean, higijene pertsonalari dagokionez, beharrezkoa izanez gero, garbiketaz ere arduratuko gara. Azkenik, lagundu egingo diegu bai etxean bai etxetik kanpo mugi daitezen.

Lehen azaldu dugun bezala, erosketei dagokienez, gure enpresak harremana du gure bezeroek eskatutako produktuak ematen dizkiguten hainbat supermerkatuekin: janaria, higijena, etab. Arazoren bat izanez gero, beti jo dezakegu tokiko saltokiren batera beharrezko produktu batzuk erostera. Era berean, botikei dagokienez, gu arduratuko ginatke behar dituzten botikak erostean, hurbileko edozein famaziatara joanez, medikuak aurrez emandako mediku-errezetak erabiliz.

Azkenik, gure lana erabat amaitzeko, fakturak eta beharrezko dokumentazioa bildu eta administratuko dugu. Adineko batzuek ez dakite prozedura bat baino gehiago egiten, eta, beraz, paper-paper horiek guztiak jaso, berrikusi eta, azkenik, gure bezeroari zer egin behar duen jakinarazi eta, zalantzaren bat edo arazoren bat izanez gero, lagundu egiten diegu.